



EUSKARA SUSTATZEKO POLITIKA UPV/EHUN: PLAN GIDARIA

Jon Irazusta

UPV/EHUko Euskara eta Eleaniztasuneko Errektoreordea

Helbide elektronikoa: jon.irazusta@ehu.es

1. DATU OROKORRAK

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU). Eusko Autonomia Erkidegoko unibertsitate publiko bakarra da. 45.000 ikasle inguru, lan postu finkoa duten 3.456 irakasle, 658 ikertzaile eta AZPko 1600 langile baino gehiago ditu. UPV/EHUK 31 ikastegi ditu eta bertan lehen eta bigarren zikloko 107 titulazio eta 78 graduondoko eskaintzen dira. 2010-2011 ikasturterako Europako Unibertsitate Eremura (EUE) egokitutako graduoko 68 titulazio eskaintzea onartu dira. Hau da, inguruko unibertsitateen aldean handia dela esan genezake.

Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE)n euskara eta gaztelania hizkuntza ofizialak dira eta pertsona elebidunen kopurua gora doa. Eusko Jaurlaritzak 2009ko apirilean argitaratu duen IV. Mapa Soziolinguistikoaren arabera, 2006an EAeko populazioaren %37,5a elebiduna da. 15-19 urte bitarteko populazioan %67,5a da elebiduna. Hau dela eta, unibertsitatean irakaskuntza euskaraz jasotzea eskatzen duen ikasleen kopurua gora doa. Gaur egun UPV/EHUrako datozen ikasleen %45a euskaraz ikastea eskatzen du. Datu hauen bilakaera azken urteetan I taulan ikus daitezke.

Urte Akademikoa	Osoa	Euskaraz	% Euskaraz
1999/2000	12.647	3.446	27,25
2000/2001	10.946	3.341	30,53
2001/2002	10.814	3.908	36,14
2002/2003	11.251	4.019	35,73
2003/2004	11.327	4.284	37,82
2004/2005	11.066	4.382	39,60
2005/2006	10.631	4.502	42,35
2006/2007	9.911	4.214	42,52
2007/2008	9.487	4.304	45,37
2008/2009	7.858	3.635	46,20

I Taula: Lehen mailan euskaraz ikastea eskatzen duten ikasleen kopuru eta %en bilakaera azken 10 urteetan.

Euskaraz ikasteko eskaerari aurre egiteko, UPV/EHUK sortu zenetik baliabideak jarri eta politika bereziak ezarri ditu. Horregatik oraingo egoera ulertzeko historian zehar gertatu dena jakitea egokia da.

2. AURREKARIAK

2.1. Plangintzen aurreko aldia

1970 hamarkadaren hasieran, UPV/EHU jaio aurretik, Bilboko Unibertsitateko hainbat ikastegietan modu ez-ofizialean eta eskola orduetatik kanpo Euskara ikasteko klaseak hasi ziren. Hamarkada honen erdialdean lehen tesinak (Jazinto Iturbe, 1974) eta doktore-tesiak (Ricardo Arrue, 1976) irakurri ziren euskaraz. 1976-1977 ikasturtean hasi ziren euskaraz lehen klase ofizialak eta hamarkadaren amaieran Zientzia Fakultatean biologia, geologia eta kimikako lehen ikasturtea euskaraz ikas zitekeen.

UPV/EHU 1980-1981 ikasturtean sortu zen. Hemendik aurrera, Unibertsitateko Euskara sustatzeko azpiegitura sendotzen joan zen, euskaraz irakasteko kontratazioak hasi ziren, Euskara Batzordea, Euskara Errektoreordetza eta Euskarako Kabinete Teknikoa sortu ziren eta honen ondorioz euskarazko irakaskuntzak gora egin zuen (hamarkadaren bukaeran eskaintzaren %32ra euskaraz ere bazen). Garai horretan baliabideak jarri arren, ez zegoen idatzitako araudirik euskararen garapena sustatzeko UPV/EHUK arazo honi konponbidea emateko 3 arau egin ditu.

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU). Eusko Autonomia Erkidegoko unibertsitate publiko bakarra da. 45.000 ikasle inguru, lan postu finkoa duten 3.456 irakasle, 658 ikertzaile eta AZPko 1600 langile baino gehiago ditu. UPV/EHUK 31 ikastegi ditu eta bertan lehen eta bigarren zikloko 107 titulazio eta 78 graduondoko eskaintzen dira.

1970 hamarkadaren hasieran, UPV/EHU jaio aurretik, Bilboko Unibertsitateko hainbat ikastegietan modu ez-ofizialean eta eskola orduetatik kanpo Euskara ikasteko klaseak hasi ziren. Hamarkada honen erdialdean lehen tesinak (Jazinto Iturbe, 1974) eta doktore-tesiak (Ricardo Arrue, 1976) irakurri ziren euskaraz. 1976-1977 ikasturtean hasi ziren euskaraz lehen klase ofizialak eta hamarkadaren amaieran Zientzia Fakultatean biologia, geologia eta kimikako lehen ikasturtea euskaraz ikas zitekeen.

2.2. UPV/EHUko Euskararen Normalizaziorako Plangintza

1990. urtean Euskararen I Normalizaziorako Plangintza onartu zen. Hau izan zen UPV/EHUko euskararen garapena arautzeko lehen saioa. Araudi hau 1972ko ikasketa planei egokitua zegoen. 4 eredu zeuden titulazio bakoitzean lortu beharreko mailaren arabera:

A: Lizentziatura osoa euskaraz; B: Diplomatura osoa euskaraz; C: Lizentziaturako lehen zikloa Euskaraz D: Lizentziatura edo Diplomaturako lehen ikasturtea Euskaraz.

Helburu horiek lortzeko irakasleak ondoko bideetatik lortu behar ziren: irakasle berriak kontratatuz eta zeuden zenbait irakasleen birziklapenaz. Ohiko irakaskuntzaz gain ere, plangintza honek titulazio guztietan Euskara Teknikoa, aukerazko irakasgaia, eskaintzea aurreikusten ziren. Administrazio eta zerbitzuetako langileei dagokienez, plangintza-aren hasieran soilik %7 zen euskalduna. Plangintza hau hizkuntza eskakizunak (HE) finkatzen dituen Eusko Jaurlaritzako Dekretuaren (86/1997) aurrekoa da. Beraz ez zegoen orain dagoen zehaztasuna langile hauen artean helburuak finkatzeko garaian. Dena den, plangintzak AZPkoek Euskara ikasteko ikastaroak aurreikusten ziren eta ikastaro hauetara joan ahal izateko lan osoaren edo zati baten liberazioa. Plangintza honetan ere Euskara Institutu baten beharra aipatzen zen.

UPV/EHUko Euskararen Erabileraren Normalizaziorako II Plangintza

9 urte beranduago UPV/EHUko Euskararen Erabileraren Normalizazio II Plangintza onartu zen. II Plangintza onartu zenean irakaskuntza eskaintzaren %52 ele bietara zen. Garai honetan titulazioak kredituka antolaturik zeuden eta aukerazko irakasgaiak lehen baino gehiago ziren. Planteatu ziren mailak ondokoak izan ziren:

A+: Halabeharrezkoak + (Hautazkoak x 2); A: Halabeharrezkoak + (Hautazkoak x 1); B: Halabeharrezkoak; C: Halabeharrezkoak x 0,66; D: Halabeharrezkoak x 0,33

Aurreko plangintzan bezala Euskara Teknikoa titulazio guztietan eskaintzea aurreikusten zen. Eskaintza handitzeko bideen artean, aurreko plangintzan bezala, kontratazioa eta irakasleen birziklapena aurreikusten ziren, baina kasu honetan finantziario zehatza zegoen bi helburuetarako, I Plan Unibertsitarioan sinatutako kontratu-programaren bidez.

Irakaskuntza egokia izan dadin, irakasleak ez ezik irakats-materialak ere beharrezkoak dira. Plan honetan oinarritzko testuen itzulpena eta unibertsitateko irakasleen sormena aurreikusten dira.

AZPko langileen arloan, Eusko Jaurlaritzako 86/1997 dekretuari egokitutako helburuak ezarri ziren eta hizkuntza eskakizuna egiaztatua zuen langileen portzentaiak %40ra iritsi behar zen. Baita ere, unibertsita-

teko zerbitzu eta unitateak jendearekin duten harremanaren arabera (A, B, C, D) sailkatzen dira. Sailkapen hau tokian tokiko derrigortasun datak ezartzeko erabili izan da.

II Plangintzan beste arlo batzuetako politikak ere finkatzen ziren. Besteak beste, ikerkuntzan, baliabide informatikoetan, barne harremanetan, kanpoko enpresek euskararekin izan behar duten trataeran e.a.

Normalizazio II plangintza indarrean zegoela, Euskara Zerbitzua sortu zen (2003an), Euskara Kabinetearen birmoldaketaren ondorioz. Zerbitzu honek garrantzia handia izan du euskararen politikak hurrengo urteetan hartu zuen bidean

3. UPV/EHUKO EUSKARAREN PLAN GIDARIA

3.1 Sarrera

2007. urtean UPV/EHUKo Gobernu Kontseiluak Euskararen Plan Gidaria onartu zuen. Urte horretan lehen eta bigarren zikloko irakaskuntza osoaren %67a euskaraz ere eskaintzen zen, irakasleen lan postu finkoen %35a elebiduna zen eta Administrazio eta Zerbitzuetako Pertsonaleko (AZP) lanpostuen %40ek baino gehiago derrigortasun data zuten hizkuntza eskakizuna gainditzeko. Bestalde, unibertsitate iristen ziren ikasle-en %43a ikasketak euskaraz egin nahi zituen. Plan honi dagokionez aipagarria da Europako Unibertsitate Eremuari egokitutako graduak onartu aurretik egin zela. Beraz, trantsizio aldi baterako plana da, orain Plan Gidaria gradu horietara egokitu da.


Plan Gidariak 9 eremu ezberdinetako ekintzak aurreikusten zituen: AZPko langileak; Euskarazko Irakaskuntza; Irakasle eta ikertzaileen oreka linguistiko eta akademiko handiagorantz; Euskarazko ikasmateriala; Prestakuntza linguistikoa; Ikerketa eta zabalkundea; Euskara erabiltzeko arauak; Euskararen azpiegitura; Beste unibertsitate-erakundeekiko elkar lana.

3.2. Administrazio eta Zerbitzuetako Pertsonaleko langileak

Arlo honetan, euskara lanorduetan ikasteko langileak liberatzea da hizkuntza eskakizuna (HE) egiaztatua duten langile kopurua igotzeko tresnarik nagusietako bat. Plan gidarian 40 langileei 5 orduko liberazioak eskaintzen zaizkie urtero eta 220 langileei 2 orduko liberazioak. Honetaz gain 3. HE gainditu nahi duten langileentzat (bere lanpostuak 2. HE eskatzen duenean) 2 orduko beste 20 liberazio eskaintzen dira, 3 HE baita euskaraz naturaltasunez eta jariatutasunez jarduteko bermea ematen duena. 1. irudian ikus daiteke HE-en bat gainditua duten AZPko langileen kopuruaren eboluzioa azken 15 urtean.

1990. urtean Euskararen I Normalizaziorako Plangintza onartu zen. Hau izan zen UPV/EHUn euskararen garapena arautzeko lehen saioa. Araudi hau 1972ko ikasketak planei egokitua zegoen. 4 eredu zeuden titulazio bakoitzean lortu beharreko mailaren arabera.

2007. urtean UPV/EHUko Gobernu Kontseiluak Euskararen Plan Gidaria onartu zuen. Urte horretan lehen eta bigarren zikloko irakaskuntza osoaren %67a euskaraz ere eskaintzen zen, irakasleen lan postu finkoen %35a elebiduna zen eta Administrazio eta Zerbitzuetako Pertsonaleko (AZP) lanpostuen %40ek baino gehiago derrigortasun data zuten hizkuntza eskakizuna gainditzeko. Bestalde, unibertsitatera iristen ziren ikasleen %43a ikasketak euskaraz egin nahi zituen.



1. Irudia. AZPko langileen kopuruaren eboluzioa azken 15 urtean.

AZPko langileen esparruan ere bai, eta jende aurreko arreta elebiduna bermatzeko, atezain nagusi eta menpekoei, salbuetsita daudenei izan ezik, euskarazko oinarritzko ezagutza egiaztatu izana proposatzen da.

Dena den, langileek HE bermatua izateak ez du esan nahi euskara erabiliko denik. Erabilera areagotzeko bi ekintza planteatzen ditu plan gidariak. Alde batetik zenbait unitate arlo elebidunak izango dira eta horretara doazen langileak dagozkien hizkuntza eskakizunak egiaztatuz izango dituzte. Bestetik, premia handia duten ikastegietan (adibidez ikasle euskaldun asko dauzkatelako) erabilpen planak bultzatzen dira, langileen euskararen erabilera handitzeko.

3.3. Euskarazko Irakaskuntza

Plan Gidariaren helburua da euskarazko taldean 15 ikasle baino gehiago dituzten titulazioen derrigorrezko irakasgai guztiak euskaraz eskaintzea. Helburu honek nahiko betetze maila ona du gaur egun, 2009-2010 ikasturtean baldintza horiek betetzen dituzten irakasgaien %90a baino gehiago euskaraz eskaintzen baitira. Titulazio guztiak kontuan hartzen baditugu, euskaraz 15 ikasle baino gutxiago dituztenak barne, betetze maila %75,5 koa da (plangintzaren hasieran %67) Defizit nabarietak irakasle gai gutxi dituzten jakintza arloetan gertatzen dira, batez ere irakaskuntza teknikoetan eta osasun arloan.

Datozen urteetan hutsune horiek bete beharko dira, gradu berrien onarpena eta gero sortzen diren beharrekin batera (batez ere 3 urtetik 4 urtetara igarotzen diren titulazioetan). Hau modu egokian egin dadin, Gobernu Kontseiluak araudi berri bat onartu du eta horren arabera, datozten urteetan euskaraz eskainiko dena II taulan agertzen da.


	%
Gradu berriak 2010-2011	90,9
Gradu berriak 2012-2013	95,4
Gradu berriak > 15 ikasle	100,0

II taula. Gradu berrietan datozen urteetan euskaraz eskaini behar den derrigorrezko kredituen %a

Graduondokoetan euskarazko eskaintza apalagoa da 3 graduondoko euskaraz bakarrik eskaintzen ditugu eta beste 17tan euskarazko eskaintza dago, maila aldagarrian bada ere. Datozen urteetan, ahalegin berezia egin beharko da euskarak gaztelaniaren eta ingelesaren presentzia parekidea izan dezan.

3.4. Irakasle eta ikertzaileen oreka linguistiko eta akademiko handiagorantz

Plan Gidaria onartu zenean arduraldi osoko lanpostu finkoen %35a elebiduna zen. Plan Gidariaren helburua da portzentaia %43ra igotzea. Une honetan, eta 2. irudian beha daitekeenez, helburu horren erdibidean gaudela plantilako lanpostuen %40a elebiduna baita. Irakasle elebidunen portzentaia igotzeak, graduondokoan eta doktoregoan euskararen presentzia handitzea baimenduko du, eta irakasle elebidunek jasaten duten gainkarga arintzeko balio dezake.



2. Irudia. Irakasle elebidunen %bilakaera azken urteetan.

Dena den, langileek HE bermatua izateak ez du esan nahi euskara erabiliko denik. Erabilera areagotzeko bi ekintza planteatzen ditu plan gidariak. Alde batetik zenbait unitate arlo elebidunak izango dira eta horretara doazen langileak dagozkien hizkuntza eskakizunak egiaztatuak izango dituzte. Bestetik, premia handia duten ikastegietan (adibidez ikasle euskaldun asko dauzkatelako) erabilpen planak bultzatzen dira, langileen euskararen erabilera handitzeko.

Plan Gidaria onartu zenean arduraldi osoko lanpostu finkoen %35a elebiduna zen. Plan Gidariaren helburua da portzentaia %43ra igotzea.

3.5. Euskarazko irakats-materiala

Unibertsitate mailako euskarazko testuen ekoizpenak ez du izan ikasketen eskaera eta irakaskuntzaren eskaintza izan duten bilakaera. Jakintza arlo gehienetan gutxi dira euskaraz dauden material didaktikoak. Plan Gidarian 2 esparru zehatzetan ahalegin bereziak egin behar direla aipatzen da: eskuliburuak eta ikasmaterial propioa.

Oinarrizko eskuliburuaren itzulpenen argitaratzeak gorakada nabarmena jasan du Plan Gidaria onartu zenetik. Urtero 2 eskuliburu itzultzetik 10 itzultzera igaro gara (ikus III taula). Gorakada honen eragileak izan dira Eusko Jaurlaritzarekin sinatutako kontratu-programa eta UPV/EHUko Euskara Zerbitzuak. Argitalpen Zerbitzuak eta zenbait irakasleek egin duten lana. Itzuli beharreko liburuak aukeratzeko orduan irizpideak zehaztu behar dira. Alde batetik liburu klasikoak izan behar dira, ikasle askok erabiliko dituztenak eta zaharkituak geldituko ez direnak. Bestetik, testu ekoizpen gutxiago izan duten jakintza arloak lehenetsi behar dira, batik bat arlo teknikoa eta osasun arloa. Datozen urteetan erritmo bera jarraitzea nahiko genuke. Itzulpenen arloan ere (ikus ere III taula) gorakada nabaria izan du serie berezietako itzulpenen kopurua, honen barruan Leye-Legeak (zuzenbidea) eta Limes (filosofia) bildumak daude.

Urtea	Sareko materialak	Eskuliburuaren itzulpenak	Beste itzulpenak
2003	23	2	0
2004	23	5	2
2005	30	5	2
2006	34	3	4
2007	41	8	5
2008	53	9	3
2009	41	10	5

III taula. Irakats-materialen ekoizpenaren eboluzioa euskara zerbitzua sortu zenetik.

UPV/EHUK ere beste mota bateko materialak argitaratu ditu, hain zuzen ere gure irakasleek sortutakoak. Material hauek zehatzagoak dira, irakasle bakoitzak bere metodologia eta irakasgaiaren edukietara egokitzen dituenak eta epe motz edo ertainean aldaketa gehiago izaten dituztenak. Euskara eta Eleaniztasuneko Errektoreordetzak urtero horrelako materiala argitaratzeko deialdia egiten du eta gero eta material gehiago argitaratzen dira. Une honetan urtero 40 material inguru argitaratzen dira.

3.6. Prestakuntza linguistikoa

Euskara hainbat arlotan estandarizatu gabeko hizkuntza da. Unibertsitateak bere arloetako hizkuntza hobekuntzan eginkizun garrantzitsua betetzen du; alde batetik hizkuntzaren kodetze eta elaborazio lanetan eta hizkuntzaren arau eta kode egokien gizarteratzean, izan ere urtero milaka ikaslek euskaraz ikasten dute bertan. Prestakuntza linguistikoan bi arlo bereizi behar dira alde batetik langileak (AZP, Irakasle eta Ikertzaileak) eta bestetik ikasleak.

Hizkuntza Eskakizuna (HE) gainditua duten langileentzat plan gidarian bi ekimen aurreikusten dira: hobekuntza ikastaro espezifikoak eta prestakuntza tailerrak jakintza arlo zehatz bateko hizkuntza arazoez aritzeko.

Ikasleen prestakuntzarako Europako Unibertsitate Eremuari egokitutako graduatan hobekuntza linguistikoarekin lotutako bi irakasgai eskainiko dira: bata orokorra euskararen erabilera eta arauak buruz eta bestea espezifikoagoa arlo bakoitzeko euskarazko komunikazioari buruzkoa.

3.7. Euskararen Azpiegitura

2003 Euskara Kabinetea zenaren eraldaketaz Euskara Zerbitzua sortu zen. Ordutik hona zerbitzu honek unibertsitateko euskararen erabilerean zuzentasunez arduratzen da. Bere ardurapean daude, besteak beste, testuliburuak eta ikasmaterialek zuzenketak, hobekuntza ikastaroen ardurak, dokumentu administratiboak itzulpena eta euskaraz lan egiteko tresna informatikoen sortze eta mantentzea. Azken hauei dagokienez, aipatzekoak dira EHULKU, euskara zuzenaren inguruko zalantzak argitzeaz arduratzen dena, AZPIDAZKI administrazioan euskaraz lan egiteko lagungarri den tresna eta EHUtsi euskararen erabilpen okerraz ohartarazten gaituena. Tresna guztiak sarean daude, Euskara eta Eleaniztasuneko Errektoreordetzaren Web orrian (www.ehu.es/euskara) eta eduki gehienak guztientzat zabalik daude.

3.8. Ikerketa eta zabalkundea

Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitate-mailako ekoizpen zientifiko gehiena Euskal Herriko Unibertsitateak sortzen du. Erabat estandarizatu ez dagoen hizkuntza batentzat, ikertzaileek hizkuntza horretan egin dezaketen ekarpenak derrigorrezkoak dira. UPV/EHUk arlo honetan ere ahalegin berezia egin du, eta une honetan euskaraz argitaratzen diren hiru aldizkariz gain, euskarazko Doktore Tesien kopurua eta Tesi Europarretan erabiltzen den hizkuntza ofiziala euskara izatea bultzatu nahi dugu.

Jakintzaren zabalkundean udako ikastaroei garrantzia handia dute. 3. Irudian ikus daitekeenez, urtez urte, euskaraz eskaini diren ikastaroen

Unibertsitate mailako euskarazko testuen ekoizpenak ez du izan ikasketen eskaera eta irakaskuntzaren eskaintza izan duten bilakaera. Jakintza arlo gehienetan gutxi dira euskaraz dauden material didaktikoak. Plan Gidarian 2 esparru zehatzetan ahalegin bereziak egin behar direla aipatzen da: eskuliburuak eta ikasmaterialek propioak.

Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitate-mailako ekoizpen zientifiko gehiena Euskal Herriko Unibertsitateak sortzen du. Erabat estandarizatua ez dagoen hizkuntza batentzat, ikertzaileek hizkuntza horretan egin dezaketen ekarpenak derrigorrezkoak dira. UPV/EHUk arlo honetan ere ahalegin berezia egin du, eta une honetan euskaraz argitaratzen diren hiru aldizkariz gain, euskarazko Doktore Tesien kopurua eta Tesi Europarretan erabiltzen den hizkuntza ofiziala euskara izatea bultzatu nahi dugu.

kopuruak gora egin du eta azken lau urteetan kopurua bikoiztu da. Dena den, oraindik ere joera gorakorra mantentzea beharrezkoa da euskarazko ikastaroen kopurua ez baita %10era irizten.

Urtea	Donostia	BAK
2005	6	1
2006	7	3
2007	7	2
2008	5	4
2009	9	4

IV. Taula. Euskaraz eskaintzen diren Donostiako eta Bilboko Arte eta Kulturako ikastaroen kopurua

3.9. Elkarlana beste unibertsitate eta erakundeekin

Euskararen Plan Gidariaren arabera euskara erabiltzen duten beste unibertsitateekin elkarkidetzak bultzatu behar da. Elkar lana hau esparru ezberdinetan gauzatu daiteke.

- Irakats- materiala. Lehen aipatu bezala arlo honetan gabeziak ditugu. Euskara maila akademikoan erabiltzen duten unibertsitate eta beste erakundetako egileen lankidetzaz material gehiago eta aberatsagoak ekoitz daitezke. Baita ere bakoitzaren ekoizpena beste ondo zabaltzeko bideak jarri beharko liriateke.
- Euskaraz zabaltzen den ikerketaren ebaluazioa. Askotan arazoak daude euskaraz aurkezten diren Doktorego-Tesi, ikerketa-proiektu eta argitalpenak ebaluatzeko. Horregatik, ondo legoke euskarazko lanak ebaluatu dezaketen euskal ikerlarien informazioa biltzea.
- Euskarazko graduondokoak. Graduondoko erakargarri bat egiteko arlo bateko edo gehiagoko irakasle eta ikasle kopuru minimoa behar da. Arlo batzuetan ez da erreza unibertsitate bakar batean euskaraz minimo hauek lortzea. Unibertsitateen arteko lankidetzak hainbat graduondoko bideragarri egiten lagundu dezake. Arlo honetan irakaskuntza birtualak garrantzia izan dezake
- Zabalkundea. Uda ikastaroak dira unibertsitatean sortzen den jakintza gizarteratzeko modu bat. Lehen esan bezala, esparru horretan euskarak ez du oraindik beharko lukeen presentzia. Unibertsitateen arteko lankidetzaz ikastaro erakargarriagoak eskaini daitezke, askotan aipatzen den entzule kopuru murrizak sortzen dituen arazoak saihestuz.

ONDORIOAK

UPV/EHUK sortu zenetik bere jardueretan euskararen erabilera sustatzeko ahalegin berezia egin du. Zenbait esparrutan lortutako emaitzak oso onak dira, besteak beste, graduoko eskaintzan edo AZPko langileen hizkuntza-gaitasunean. Aldiz beste esparru batzuetan egiteko lan eskerga dago. Datozen urteetan graduondokoetan, doktoregoan eta jakintzaren zabalkundeetan lan berezia egin behar dugu. Horretarako garrantzitsua izango da euskara erabiltzen dugun unibertsitateen eta beste erakundeen arteko lankidetzak. ■

ERREFERENTZIAK

- UPV/EHUko Euskararen Erabileraren Normalizaziorako Plangintza. UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua. Leioa, 1990.
- UPV/EHUko Euskararen Erabileraren Normalizaziorako II Plangintza. UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua. Leioa, 1999.
- UPV/EHUko Plan Gidaria. UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua. Leioa, 2007.
- Unibertsitatea Kopurutan. www.ehu.es
- IV Mapa Soziolinguistikoa. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzua Nagusia Vitoria-Gasteiz, 2009.
- Karmele Artetxe "Komunitate Zientifiko Euskalduna. Azterketa historikoa eta bibliometrikoa" Doktorego Tesia, 2010.
- 86/1997 DEKRETUA, apirilaren 15ekoa, Euskal Autonomia Elkartearen herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautuko duena. EHAA, 1997ko apirilaren 17a.

UPV/EHUK sortu zenetik bere jardueretan euskararen erabilera sustatzeko ahalegin berezia egin du. Zenbait esparrutan lortutako emaitzak oso onak dira, besteak beste, graduoko eskaintzan edo AZPko langileen hizkuntza-gaitasunean. Aldiz beste esparru batzuetan egiteko lan eskerga dago. Datozen urteetan graduondokoetan, doktoregoan eta jakintzaren zabalkundeetan lan berezia egin behar dugu. Horretarako garrantzitsua izango da euskara erabiltzen dugun unibertsitateen eta beste erakundeen arteko lankidetzak.